

**BIZKAIIA ERROMATARREN GARAIAN:
AURKIKUNTZAK ERROMATARREN EZAGUTZAN.
MAPA BERRIA**

Karmel aldizkariko 303. zenbakian (Karmel 2018-3, 17-36) Gipuzkoako erromatarren garaiko aurkikuntzak oso era laburrean aurkeztu genituen, mapa berezi bat ere eskainiz. Esan den bezala, era laburrean izan arren, informazio zehatza eskaintzen genuen, erromatarrek gure artean izandako presentziari eta beraien kulturari buruz aztarnategietan lekukotzat geratutako aztarnei buruz.

Orduan zein gutxi ezagutzen den errealitate hau nabarmentzen genuen. Egin-eginean ere, orain dela 50 urte zela genuen ezagutza eta gaur egungoa oso ezberdinak baitira. Ikuspegi berri hau azken hamarkadetan burutu diren ikerkuntzei zor zaie bereziki. Eta Bizkaiari dagokionean antzeko zerbaitek gertatu da azken 60 urteei dagokienez.

Orduko idazlan hartan, oso labur izanda ere, dagoeneko aditzera ematen genuen erromatarrek Euskal Herrian izandako presentzia eta euskaldunak erromatarren armadan eta abarretan izandakoa.

Bizkaiari dagokionez, kontuan hartu beharreko bi lan argitaratu ziren, hain zuzen ere “Carta de arqueología” deituak 1982an eta 1984an¹, beraietan jasotzen zirela aurreko ikerkuntzen emaitzak, batez ere azken hamarkadetan egindakoak.

¹ Cf. Marcos Muñoz, José Luis, *Carta arqueológica de Vizcaya. Primera parte: Yacimientos en cueva*, Bilbao, 1982, 244 or (CAD, 8); Gorrochategui,





Erromatarren presentziaren lekutasunak Bizkaian. Mapa barria.

XX. mendeko lehen hamarkadetan zenbait eduki arkeologikoren berri eman ziguten P. Alzola, D. Areitio eta Carmelo Echegaray jaunek. Bigarren hamarkadan Telesforo Aranzadi, Jose Migel Barandiaran eta Enrike Eguren jaunek osatu zuten arkeologia-taldeak behin betiko bultzada eman zien bereziki historiaurreko aurkikuntzei. Eta gerra zibilaren ondoren, 1949an ‘Munibe’ aldizkaria sortu zen; eta J. Migel Barandiaran jaunak beste bultzada bat eman zion... Eta arkeologia-gaiak aztertzen zituzten aldizkari berriak agertu ziren: *Estudios de arqueología alavesa* (1966), *Kobie* (1969), *Cuadernos de Arqueología de Deusto* (1974). “Aranzadi” Arkeologia-Ikerkuntzarako Institutuak bultzaturik, *Arkeoikuska* (1976) sortuko da; garai bereztuan *Trabajos de arqueología Navarra* (1979), *Isturitz. Cuadernos de prehistoria – arqueología* (1982), *Veleia* (1984), *Boletín Arkeolan* (1996) etab... agertu ziren. Arkeologia-ikerkuntzen aldeko ekimen honetan eragin handia izan zuten zenbait museok, kultur erakundeak, eta beste halako zenbaitek.

Arkeologia-ikerkuntzen zenbait hamarkadako emaitzek ikuspegi zabalagoa eskaini digute erromatarrek Bizkaian izandako presentziari dagokionez.

Bizkaiko lurraldean zehar erromatarren presentzia-mota ezberdinak ageri dira, hau da, toki zehatz batzuetan burututako hainbat jarduera ezberdin eta, baita ere, gure lurraldera heldu den erromatar kulturaren aztarnak. Jakina, zer esanik ez, oso ezberdina izan daiteke erromatarren presentziari buruzko aurkikuntzen kalitatea. Leku ezberdinetan jasota, jarraian aurkeztu dugun aurkikuntzen zerrendan erromatarren kokaguneen konstantzia egiaztatzen dugu, besteak beste honakook kontuan hartuz: arrantza bezalako lehen gaien ustiapena, harrobiak eta siderurgia-ustiapena nahiz metalurgia-jarduera, portuetako jarduera, defentsarako egiturak, harresien egiturak,

Javier - Yarritu, M. J., *Carta arqueológica de Vizcaya. Segunda parte: Materiales de superficie*, Bilbao, 1984, 232 or (CAD, 9).

nekropoliak edo hobiratzeak, erromatarren gaiez egindako etxe-tresnak, erromatarren ohiko zeramika, erromatarren alda-reak, estelak eta hilarriak, gurutze-formako eta astroen erako apainketak, idatziak dituzten hilarriak, IrisFortuna jainkosaren irudia, txanponak, metalezko eta beirazko hainbat objektu, ‘*terra sigillata*’ edota ‘*terra sigillata hispaniko*’ erakoak, etab.

Abadiño: *Astxiki*. Erromatarren beranduko gunea.

Abadiño: K.o.ko 41-54 urteen arteko txanpon bat aurkitu zen.

Abadiño: *Oialkoba*. Koban IV-V. mendeetako zeramika aurkitu zen.

Abanto Zierbena: *Ranes*. Erromatarren garaiko (zeramika) zati ugari.

Amorebieta-Etxano: *Boroa*. Epigrafia-inskripzioa, erromatarren estela bat, (II-)III. mendekoa.

Arrieta: *Jainko* (Andra Mari). Lehen mendeei dagokien gurutze-formako apainketa duen hilarriaren aurkikuntza.

Arrigorriaga: *Abrisketa*. Epigrafia duten hilarriak, zatiak. II-IV. mendeen artekoak.

Avellaneda (Urrestieta). Urrestietako miliarioa aurkitu zen: ha-reharrizko zilindroa, epigrafea duena: 238. urteari dagokiona.

Basauri: *Finaga* (nekropolia). Eskuratutako materialen artean II. mendeko ‘*terra sigillata hispanikoaren*’ (T.S.H.) zati batzuk erregistratu ziren, baina nekropoliaren instalazioa IV. mendekoa dela uste da. Hobiratzeak, gurutze-formako apainketak eta astroei buruzkoak dituzten hilarriak. I-IV. mendeen artekoak.

Bermeo: *Almika*. Erromatarren kokagunea egon zitekeen. III. mendeko txanpona aurkitu zen.

Bermeo: *Kurtzio* (baseliza). *Terra sigillata* aurkitu zen.

Bermeo: *Tribisburu*. Nekropoli erromatarra. ‘Beira-zatiak, eskuz egindako zeramika arruntezkoak eta metalezko piezak,

hauen artean aizto-orri bat eta burdinazko zenbait puntapax ageri direla'. I-III. mendeen artekoa.

Berriatua: *Goikolau*. Koban IV. mendeari dagozkion txanponak eta T.S.H.T. aurkitu ziren.

Bilbo: *Bilboko itsasadarra*. II. mendeko txanponak aurkitu ziren.

Busturia: *Paresi* (Sollube mendikatean). Gurutze-formako eta astroen erako apainketak dituzten estelak, I. mendekoak.

Dima: *Lamindao auzoko 55*: (Aramotz mendikatean). Koban aurkitutako estela, I. mendekoa...

Ea: *Natxitua*. Giza itxurako hileta-estela dago, inskripziorik gabea, II. menderi dagokiona.

Elorrio: *Argineta*. Erromatarren garaian kokagune bat egon zitekeen bertan, ziurtasun gutxi dugun arren: *terra sigillata* motako eta zeramika arruntezko zati batzuk.

Elorrio: *Mendraka*. Brontzezko sei txanpon erromatar aurkitu ziren. Baita *terra sigillata* motako zatiak... K.a.ko I. mendearren eta K.o.ko II. mendearen artekoak.

Ereño: *Ereñoko Hariztia* (Geranda mendia). Hainbat aurkikuntza izan dira: erromatar materialezko etxeko gauzak; zeramika arrunta, IV. mendeko txanponak, etab.

Errigoiti: *Metxikas*. I. mendekoa... dan estela.

Errigoiti: *Sakona*. Erromatar txanpon ugariaren aurkikuntzak.

Errigoiti: *Santa Gurutz*. Gurutze-formako apainketa duen hilarria (I. mendekoa...).

Forua: Erromatarren kokagunea. I-IV. mendeetan jardunean izandakoa. Honakook aurkitu dira: T.S.H., zeramika arrunta, Antonio Pioren txanpona (II. mendearen ingurukoa), I. eta II. mendeetako altzari-materiala, txanpon asko (I-III. mendeetakoak), al-dare erromatarra, etab.

Forua: *Foruko Haitza*. *Terra sigillata* (T.S.H.T.) motako hainbat pieza, zeramika erromatar arrunta, metalezko eta beirazko gauzak..., Isis-Fortuna irudikatzen duen irudi bat eta bi txanpon. IV-V. mendeetakoak.

Fruiz: Sollubeko mendikatean. Gurutze-formako apainketa duen hilarria, I. mendekoa.

Galdakao: *Obispoetxe* (Elexalde). Epigrafiatzko hilarria eta giza formak dituen apainketa, III-IV. mendeetakoak.

Galdames: *Areatza-I koba* (Galdamesko San Pedro). Erromatarren kokagunea ageri da; behe-inperioan erabili zuten eta *terra sigillata* motako materialak, zeramika arrunta (IV-V. mendeetakoak) eta brontzezko hainbat objektu eta IV. mendeko brontzezko txanpon batzuk ditu.

Gamiz-Fika: *Berreaga* (nekropolia). Honakoak aurkitu ziren: harresia, etxeak, T.S.H., gurutze-formako eta astroei buruzko apainketak dituzten hilarriak, etab., K.a.ko II. mendearen eta K.o.ko II. mendearen artekoak. 'honakoei dagozkien 18 zati: beso makurreko svastikaz apaindutako disko formako estela bati, mota prismatikoen hainbat zati, gurutze handi latinoak osatuz lerro paraleloz apaindua'.

Garai: *Momoitioko San Joaneko nekropolia*. Tokiko zeramika arruntezko lapikoak eta *terra sigillata* erako ontziak... aurkitu ziren; II-IV. mendeen arteko T.S.H. motako zatiak.

Gernika: *Ginerradi*. bertako materialak kobetako bizilagunen artean ezagutzen den etxe-tresna erromatarren kopururik osoena dira.

Gernika: *Kosnoaga*. Zeramika zeltiberiarra eta arrunta, K.a. ko IV. mendetik K.o.ko II. mendera artekoak.

Getxo: *Kortiñe*. II-IV. mendeen arteko T.S.H., zeramika arrunta, etab. aurkitu ziren.

Gordexola: *Zaldu (Gordexolako San Nikolas elizan)*. Hareharizko estela epigrafiaduna: inskripzioak dituzten hiru giza irudi; III-IV mendeen artekoak izan daitezke.

Güeñes: *Nortza*. J.E. Delmas-ek eskainitako berrietan Klau-dio Nerón eta Victoria Vixtrix jaun-andreen kobrezko eta zilare-zko txanponak aurkitu ziren (I. mendekoak).

Ibarrangelu: *Gerrandixo*. Gerrandixo mendiko koba batean erromatar mundukoak ziren material batzuk aurkitu ziren: T.S.H.T., beira; IV-V. mendeen artekoak

Ibarrangelu: *Tremoia*. Zeramika arrunta aurkitu zen.

Igorre: *Getaleuta*, 28: (Aramotz mendikatean). *Getaleutako* koban T.S.H.T. motako zeramika aurkitu zen. IV-V. mendeetako.

Ispaster: *Kobeaga*. Koban IV-V. mendeei dagokien zeramika aurkitu zen

Karrantza: *Zorra koban*. Koban aurkitutako txanponak III. mendekoak dira.

Kortezubi: *Aurtenetxe*, 10 (Urdaibairen bokalean). Aurtene-tzeko koban IV-V. mendeei dagokien beira, T.S.H. eta zera-mika arrunta aurkitu ziren.

Kortezubi: *Sagastigorri*. IV-V. mendeei dagozkien T.S.H.T., zeramika arrunta, txanponak, etab. aurkitu ziren.

Kortezubi: *Santimamiñe*. Koban IV. mendeko zeramika arrunta, T.S.H.T, hainbat txanpon, etab. aurkitu ziren.

Larrabetzu: *Lejartza* (mendia). Txanponak aurkitu ziren, K. ako (II)-I. mendekoak.

Lekeitio. I-III. mendeen artean kokagune erromatar bat egon zela esan daiteke. *Terra Sigillata Hispanikoaren* hondarrak, erromatarren zeramika arruntezko anfora bat, etab. (seguruenik lehen gaiak ustiatzeko portu-jarduera izan zuen, hala nola, arrantza, harrobiak eta metalurgia-jarduera) erdigunetzat portualdea zuela. Aipaturiko hondarrez gainera, eraikuntzarako

materialak nabarmentzen dira, esaterako, adreiluak, leihoetako beira zatiak, teilak, zaborreria, iltzeak, etab.

Bestalde, oso argi frogatuta dago Jasokundeko elizatik hurbil kanalizazio bat zegoela; beraren kokapenetik ondoriozta daiteke eraikin erlijiosoaren azpian erromatarren azpiegitura garrantzitsua dagoela.

Lekeitio: Arranegi 2 zk. eta Ezpeleta, 14 zk. Arranegi kalean eta jarraian dagoen Ezpeleta kalean: 'erromatarren garaiko zabortege garrantzitsu bat egoteak okupazioaren ingurua gaur egungo portuaren mugetaraino heltzen zela', eta alboan 'nekazaritza-abeltzaintzako eta metalurgiako jardueretarako gun bat izateak' adierazten dute.

Hain zuzen ere, Ezpeleta kaleko 14an, zeramikak (*terra sigillata*, sukaldeko eta mahiko arruntak, etab.), metalak, hezur zatiak eta Konstantzioren '*numus*' bat (K.o.ko IV. mendekoa) zeuden.

Lekeitio: Lumentxa koba. Erromatarrek I-V. mendeen artean erabili zuten koba hau: bertan zeramika arrunta, T.S.H.T. (IV-V. mendeetako), metalak eta hezur-industria aurkitu ziren

Lekeitio: Sosoaga edo Uribarria jauregia. Sosoaga edo Uribarria jauregian (Azpiri kaleko 8an) erromatarren behe-inperio-ko kronologia duten zeramikak aurkitu ziren, hala nola, zeramika grisezko zatiak, sukaldeko zeramika arrunta, biltegitratzeko zeramikaren zati txikiak, eta *sigillata* baten hegala bat. IV-V. mendeetakoak izan daitezkeen T.S.H.T baten atal berekoak diren hiru zeramika zati daude.

Lemoa: Elorriaga, 29: (Aramotzeko mendikatea). Gurutzeformako irudiak eta astroei buruzkoak dituzten hilarriak, I-IV. mendeetakoak.

Lezama: Astroei buruzko irudia duen disko formako hilarria, I-IV. mendeen artekoa izan daitekeena.

Markina-Xemein: Iruzubieta. Txanpon erromatarrak aurkitu ziren.

Meñaka: *Emerando*. Santa Elena baselizan astroiei buruzko apainketak dituen disko-formako estela bat dago, I. mendekoa...

Meñaka: *Mesterikako San Lorentzo*. Gurutze-formako apainketa duten hilarriak aurkitu ziren: eskultura, burua, zeramika arrunta. I. mendekoa...

Morga: *Morgako Meakaur*. Gerekizko San Esteban baseliza-koak dira eztabaida ugariaren eragile izan diren bi hilarri erromatar; hilarri epigrafiadunak eta giza irudiz apainduak (III-IV. mendeetakoak).

Hilarri batek “TE SEMPRONIE / CONIUGI SUE / POSUET / MEMORIA / CONS. CCCC” inskripzioa du.

Bigarren hilarriak honako inskripzio hau dauka: [SE]VERINIA CO/[NI]VGI SVO SALV[IC]ALO CERTIMIO”.

Morga: Gerekiz: Hilarriak.

Mundaka: *Sukarrieta* (Portuondo). Erromatarren kokagunea, honakook aurkitu zirela bertan: T.S.H., zeramika arrunta gari, beira, eraikuntza-materialak, egiturak, etab. I-IV. mendeetakoak.

Mungia. Konstanzio II.aren bi txanpon erromatar. IV. mendekoak.

Munitibar: *Arbatzegi (San Kristobal)*. Zeramika arrunta, egiturak?. II. mendekoa.

Munitibar: *Arbatzegi/Totorika*. Gurutze-formako apainketa duen estela. I. mendekoa.

Muskiz. Txanponak aurkitu omen ziren.

Nabarniz: *Marueleza*. Defentsa-egiturak, zeltiberiarren zeramika. K.a.ko II. mendetik K.o.ko II. mende artekoak.

Plentzia: Txanpon batzuk aurkitu ziren (I-IV. mendetakoak).

Portugalete: K.a.ko mendetik II. mendera arteko txanponak aurkitu ziren.

Somorrostro: IV. mendeko txanpona aurkitu zen.

Sopela: Eliza ondoan honakook aurkitu ziren: zeramika arrunta, T.S.H., Vespasianoren txenpona (III. mendekoa).

Sopuerta: *Las Muñecas*. Muñeketako Tontorrean Domiziano-ren (85. urtekoa) miliarioa aurkitu zen. Badirudi Bizkaia eta Santander probintzien arteko amaierako mugarria zela.

Trapagaran: *Loiolako urtegia*. J.J. Cepedak eta M. Unzuetak ‘erromatarren burdinola’ aipatzen dute; T.S.H.T.ren zatiak aurkitu dira, beraien fabrikazioa V. menderaino jardunean izan zitekeela. Urtegiko uren azpian Bizkaiko siderurgia-zko ustiatagirik zaharrenaren frogak ageri dira; ustiatagia I-IV. mendei dagokie.

Urduña (*Antigua-ko santutegia*). Antiguako santutegi bidean II. mendiko txanpon bat aurkitu zen.

Urduña *Frato* (Aloria-Araba). Frako-ko aztarnategian erromatarren garaiko kokagune bat I. mendetik IV. mendaren azkenera arte egon zela ageri da. Industria instalazio bat ageri da; zeramika erromatarra; *terra sigillata*, goi-inperioko *terra sigillata hispanikoa*, etab.

Urduña: *Aloria* (Araba). Aloriako erromatarren kokagunea (I-IV. m.): - *terra sigillata hispanikoa* duen goi-inperioko zeramika, eta txanpon biltegi bi; *terra sigillata hispaniko* motako zatiak (IV-V. m.); eraikin-hondarrak, etab.

Urduña: *Zedelika*. *Terra sigillata* motazko zeramika materiala aurkitu zen.

(*Avellaneda*): Urrestieta. Urrestietako miliarioa aurkitu zen: haren zirkulazioa, epigrafea duena: 238. urteari dagokiona.

Zaila: *Erretola* (miliarioa). Erretolako miliarioa aurkitu zen, 238. urteari dagokion inskripzioa duela.

Zaratamo: (hilarriak). San Lorentzo elizan bi hilarri: bata gurutze-formako apainketa duena, giza antzekoa, epigrafea izan zitekeena. I-IV. mendeetakoak.

Ziortza-Bolibar: Bolibarren III. mendeari dagozkion txanponak aurkitu ziren.

Bibliografía:

- GÓMEZ MORENO, Manuel, *De epigrafía vizcaina*, BRAH 128 (1951) 197-217.
- APELLÁNIZ CASTROVIEJO, Juan Maria – NOLTE ARAMBURU, Ernesto, *La necrópolis y el poblado de Ranes (Abanto y Ciervana, Vizcaya)*, Munibe 19 (1967) 299-314.
- MAÑARICUA, Andres Eliseo de, *La inscripción de Sempronía (Morga)*, EV 3 (1972) 51-74 (en Estudios *Estudios acerca de la cristianización del País Vasco*, Bilbao 2013, 335-355);
- BLÁZQUEZ MARTÍNEZ, José María. *Estela de Galdácano*, EAA 6 (1974), 237-245.
- SOLANA SAINZ, José María, *Autrigonia romana. Zona de contacto Castilla-Vasconia*, Valladolid 1978, 495 or.
- GONZÁLEZ DE DURANA ISUSI, F. Javier, *Dos lápidas romanas en la iglesia de San Lorenzo de Zarátamo (Vizcaya)*, Kobie 10 (1980) 515-517.
- CRESPO ORTIZ DE ZARATE, Santos, *Las fuentes epigráficas de Vizcaya en época romana*, LD 11 (1981, 21.zk.) 201-210.
- RODRÍGUEZ COLMENERO, Antonio - COVADONGA CARREÑO, María, *Epigrafía Vizcaina. Revisión, nuevas aportaciones e interpretación histórica*, Kobie (1981, 11.zk.) 81-163.
- MARCOS MUÑOZ, José Luis, *Carta arqueológica de Vizcaya. Primera parte: Yacimientos en cueva*, Bilbao, 1982, 244 or (CAD, 8).
- APELLÁNIZ, Juan Maria, *Cueva de Arenaza I (San Pedro de Galdames)*, Arkeoikuska (1983) 48-50.
- GARCÍA CAMINO, Iñaki, *Necrópolis de San Juan (Garai)*, Arkeoikuska (1983) 65-66.
- GORROCHATEGUI, Javier - YARRITU, M. J., *Carta arqueológica de Vizcaya. Segunda parte: Materiales de superficie*, Bilbao, 1984, 232 or (CAD, 9).
- UNZUETA, Miguel – MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *Forua (Barrio de Elejalde. Forua, Guernica)*, Arkeoikuska (1985) 76-78.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustin, *Epigrafía vizcaina. Sobre el supuesto cristianismo de algunos de sus ejemplares de época romana*, Kobie (1987, 16.zk.) 77-95.

- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín, *Nuevos testimonios materiales de época romana en Vizcaya*, Kobie, Serie Paleoantropología 16 (1987) 143-150.
- LLANOS ORTIZ DE LANDALUZE, A., [Zuz.], *1. arqueológica de Álava (hasta 1984)*. Vitoria-Gasteiz, 1987, 459 or.
- CEPEDA OCAMPO, Juan José - UNZUETA, Miguel, *Numismática bajoimperial romana del norte de la península ibérica*, Kobie-P 17 (1988) 133-155.
- CEPEDA OCAMPO, Juan José, *Tesorillos monetarios en el norte y noreste de la península ibérica entre la segunda mitad del siglo IV y la primera del V d.C.*, in: [BATZUK], *25 años Facultad de Filosofía y Letras. II. Estudios de geografía e historia*, Deusto, 1988, 211-226.
- GOITISOLO, Eduardo, *Hallazgos arqueológicos en Munguía (Bizkaia)*, Kobie-P 17 (1988) 201-209.
- MARTÍNEZ SALCEDO, Ana - UNZUETA PORTILLA, Miguel, *Estudio del material romano de la cueva de Peña Forua (Forua - Vizcaya)*, Bilbao 1988, 172 or. (CAD, 11).
- UNZUETA PORTILLA, Miguel – MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *Asentamiento Romano de Portuondo (Perdenales-Mundaca, Bizkaia)*, Arkeoikuska (1988) 74-78.
- OCHARAN, José Antonio, *Tesorillo romano de Sakona (Rigoitia)*, Arkeoikuska 89 (1989) 83-88:
- CEPEDA OCAMPO, J. J. – JIMÉNEZ CHAPARRO, J. J., *Necrópolis romana de Tribisburu (Bermeo, Busturia)*, Arkeoikuska 2012, 233-236; 2013, 179-181; 2015, 183.
- CEPEDA OCAMPO, J. J. - CALLEJA, J.; UNZUETA, M. - CASTAÑOS, P., *El asentamiento romano-medieval de Frato (Aloria, Álava/Orduña, Bizkaia). Campaña de prospección y sondeo 1989*, Kobie. Paleoantropología» 19 (1990/1991) 75-115.
- CEPEDA, Juan José, *Asentamiento romano de Aloria*, Arkeoikuska (1990) 54-60; (1992) 144-146; (1993) 117-121.
- UNZUETA PORTILLA, Miguel, *La estela prerromana en Bizkaia. Nuevas aportaciones y ensayo de interpretación histórica*, EIAE (1994,10. zk.) 19-38.

- BENGOETXEA REMENTERIA, Belén – CAJIGAS PANERA, Silvia – PEREDA GARCÍA, Iñaki., *La villa de Lekeitio (Bizkaia): núcleo urbano desde la Antigüedad*, Kobie. *Paleoantropología* 22 (1995) 219-246;
- GARCÍA CAMINO, I. - UNZUETA, M., *Necrópolis de Finaga. Basauri*, Arkeoikuska 94, (Vitoria, 1995) 339-344.
- GOÑI, Karmele - APELLÁNIZ, Juan María - BARRIOCANAL, Eva María, [Zuz. - Arg.], *Hilariak, museoko bilduma. Estelas, colección del museo*, Bilbao 1995, 123 or.
- MARTÍNEZ SALCEDO, Ana - UNZUETA PORTILLA, Miguel, *El asentamiento romano de la ensenada de Portuondo (Pedernales-Mundaka, Bizkaia)*, Kobie. *Paleoantropología* 22 (1995) 107-136.
- BENGOETXEA, Belén – GAJIGAS, Silvia - PEREDA, Iñaki, *Estudio para la delimitación del yacimiento romano en el municipio de Lekeitio*, Arkeoikuska 1996, 23-31.
- CEPEDA OCAMPO, J. J., - LÓPEZ CARREÑO, Iciar, *Yacimiento romano de Aloria (Orduña/Arrastaria)*, Arkeoikuska 1996, 94-96.
- PEREDA GARCÍA, Iñaki, *Erdi Aroko eta erromatarren garaiko finka-menduaren aztarnategi arkeologikoa (Lekeitio) - Yacimiento arqueológico de la villa medieval y del asentamiento romano (Lekeitio)*, Arkeoikuska 1996, 242-248.
- ARRIBAS PASTOR, José Luis, *Materiales de época romana de la Cueva de Lumentxa (Lekeitio, Bizkaia)*, Isturitz 9 (1997) 643-656.
- CEPEDA OCAMPO, Juan José, *La circulación monetaria romana en el País Vasco*, Isturitz 8 (1997) 259-302.
- ERKOREKA, Anton, *Albonica. Un nuevo asentamiento romano en Urdabai*, Isturitz 8 (1997) 309-313.
- GIL ZUBILLAGA, E., *El poblamiento en el territorio alavés en época romana*, Isturitz 8 (1997) 23-52.
- MALANDA OBREGÓN, Laura, *Un As de Claudio I en Abadiño (Bizkaia)*, Isturitz 9 (1997) 303-307:
- MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *La cultura material de época romana en Bizkaia: testimonios en torno a la actividad económica*, Isturitz 9 (1997) 565-578.
- FERNÁNDEZ PALACIOS, Fernando – UNZUETA PORTILLA, Miguel, *Sobre la Isis-Fortuna de Peña Forua (Forua, Vizcaya) y el Mercurio de la*

- Polera (Ubierna, Burgos): una introducción al reconocimiento de figuras de Larario, Veleia* (1998, 15.zk.) 145-155.
- MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *Asentamiento romano de Forua (Forua)*, Arkeoikuska (1998) 93-98,
- ANIBARRO, Sonia, *Boroa (Amorebieta-Etxano)*, Arkeoikuska 1999, 354-356:
- CEPEDA OCAMPO, Juan José, *Dos depósitos monetarios de época altoimperial romana procedentes de Aloria (Álava)*, in: CENTENO, R. M. S. - GARCÍA-BELLIDO, M^a Paz - Mora, G. (Coords.), *Rutas, ciudades y moneda en Hispania (Actas del II encuentro peninsular de numismática antigua. Porto, marzo de 1997)*, Madrid 1999, 215-228.
- FILLOY NIEVA, Idoia – GIL ZUBILLAGA, Eliseo, *La romanización en Álava. Catálogo de la exposición permanente sobre Alava en época romana del Museo de Arqueología de Alava*, Vitoria-Gasteiz, 2000, 325 or.
- UNZUETA PORTILLA, Miguel, *Yacimiento romano de Tribisburu (Bermeo-Busturia)*, Arkeoikuska (2000) 277-279.
- CANTÓN MEDINA, Dolores, *Necrópolis romana de Tribisburu (Bermeo)*, Arkeoikuska (2002) 73-78.
- GARCÍA CAMINO, Iñaki, *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal*, Bilbao 2002, 544 or.
- LECANDA ESTEBAN, José Ángel, *Ermita de Kurtzio*, Arkeoikuska (2002) 330-333. **(POR VER!)**;
- PEREDA GARCÍA, Iñaki, *Monseñor Aizpiri, 8. Palacio Sosoaga o Uribarra (Lekeitio)*, Arkeoikuska (2002) 395-401.
- PUJANA ZALDEGI, Izaskun, *Proyecto complementario de reparación de la canalización de la ría de Gernika. Laguna de aves (Gernika-Lumo)*, Arkeoikuska (2002) 454-457.
- UNZUETA, M. – MARTÍNEZ SALCEDO, A. - ALKORTA, E., *Poblado de Forua (Forua)*, Arkeoikuska (1983) 62-65; (2002) 82-85.
- BOLADO DEL CASTILLO, Rafael – MARTÍNEZ VELASCO, Antxola, *El recinto fortificado de Illunzar (Nabarniz, Bizkaia) y el alto de Motrollu (Munitibar, Bizkaia)*, Nivel Cero 11 (Santander 2003-2007) 65-78.
- UNZUETA PORTILLA, Miguel, *Necrópolis de Berreaga (Gámiz-Fika)*, Arkeoikuska (2003) 357.

MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *Arqueología e historia del período romano en Bizkaia (1972-2002)*, Kobie (Anejo 6, vol. 1) (2004) 353-369.

MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *Erromatarren garaiko zeramika arrunta Euskal Herrian – La cerámica común de época romana en el País Vasco*, Vitoria-Gasteiz 2004, 470 or. (EKO B 1 (Euskal kultura ondare bilduma. Colección de patrimonio cultural vasco)).

AÑIBARRO, S. – GARCÍA CAMINO, I., *Argiñeta*, Arkeoikuska 2012, 173-177; 2013, 210-215; 2014, 204-209; Arkeoikuska 2013, 210-215.

ESTEBAN DELGADO, Milagros – MARTÍNEZ SALCEDO, Ana. – ORTEGA CUESTA, Luis Angel - ALONSO OLAZABAL, Ainhoa – IZQUIERDO MARCULETA, M^a Teresa - RECHIN, François, - ZULUAGA IBARGALLARTU, M^a Cruz, *La cerámica común romana no torneada de difusión Aquitano-tarraconense (s. II a. C – s. V d. C.): Estudio arqueológico y arqueométrico*, Kobie. (Anejo 12), Bilbao 2012, 277 or.

CEPEDA OCAMPO, J. J. – UNZUETA PORTILLA, M., *Ferrería romana de Loiola*, Arkeoikuska 2014, 249-251.

CEPEDA OCAMPO, J. J. – UNZUETA PORTILLA, M., *Necrópolis de San Martín de Finaga*, Arkeoikuska 2014, 168-172.

Julen Urkiza - Patxi Uribarren